

Lehen saioarekin pozik

Taldeko lau tiralari berriak ohitu dira txapelketaren erritmora ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-05-17 ▶ IV. urtea ▶ 887. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Anoetari buruzko lehen historia liburua, kalean

BASERRIAK ▶ Aranzadik egindako 'Anoetako baserriak' lana aurkeztu dute jendaurrean

NORTASUNA ▶ Juantxo Agirre-Mauleonen iritziz, «baserriak izan dira gure nortasuna gorde dutenak» ▶ 4



Tapia baserriaren Ekialdeko aurrealde nagusiaren ikuspegia. HITZA



2006ko uztako lehen babarrunak erein dituzte San Blas auzoan

TOLOSA ▶ Aritzeta baserriko lurretan erein zituzten atzo Tolosako Babarrunaren aleak Laskorain Ikastolako 6. mailako ikasleek, Mari Karmen Iradi Tolosako Babarrunaren elkarteko lehendakariaren gomendioak jarraituz, eta Tolosaldeko hainbat sukaldariren begiradapean. N. LATABURU ▶ 2

IBARRA ▶

Azken jardunaldia falta dela, bigarren da Ibarra

5-7 irabazi dio EHU taldeari ▶ 6

LEITZA ▶

Ikusmina iragarrita Aurreraren Ligako azken partidari

Irunberri izanen du arerio, Arkixkilen ▶ 7

TOLOSA ▶

Gaztetxoek ekarpenak herria hobetzeko

Eskolako Agenda 21en baitan, Udalarik hainbat proposamen egin dizkiote ▶ 3

TOLOSA ▶ EKONOMIA

'Zuloan sar dezagun...'

San Blas auzoko Aritzeta baserriko lursailetan erein zituzten, atzo, 2006. urteko lehen babarrunak Laskorain ikastolako 6. mailako ikasleek



Laskorain ikastolako 6. mailako ikasleek babarrunari bertsoak eskaini zizkien. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Maiatzako eguzkiak ere ez zuen atzoko hitzordua galdu nahi izan eta aise nabaritu zuten bere presentzia San Blas auzoko Aritzeta baserriaren lurren ingurura bildu zirenek. Bertan, Tolosako babarrunaren lehen uztaren ereiteari ekin zioten Laskorain ikastolako 6. mailako ikasleek, Mari Karmen Iradi Tolosako Babarrunaren elkarrekin lehendakariaren argibideen laguntzarekin.

Prozesua adi-adi jarraitu zuten ikasleek, herriko sukaldari batzuen begiradapean —besteak beste, Fronton jatetxeko Roberto Ruiz, Astelenako Peio Doyharzabal, Julian Etxeko Matias Gorrotxategi, Nicolaseko Pedro Ruiz, Hernialdeko Felix Garrido, Burruntziko Juanjo Pascual eta Saustako Mikel Zuznabar— bai eta Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enple-



Tolosako Babarrunaren lehen uzta erein zuten atzo. N. LATABURU

gu zinegotzi Josemi Gomez Elo-segi ere alboan zutela.

Mari Karmen Iradi azaldu zuenez, babarruna lortzeko prozesua «duzea da»; iragan hilabetean lurra behar bezala prestatzen aritu ziren, eta atzo erein zuten; ondoren, hazia egiten hasten da. Landareak ura eta hezetasuna behar duela adierazi zuen Iradi; «dirailaren erdialdean biltzen hasten garen arte, belar txarrak eta lurra garbitzen dizkiogu».

«25.000 kiloak xede»

Tolosako babarrun beltza azken urte hauetan «goranzko joera duen produktua da» eta kontsumitzaileentzat balio handikoa, gainera. «Udaberri euritsua eta epela izatea ezinbestekoa da babarruna ona izateko», adierazi zuen Tolosako Babarrun elkarteko zuzendariak. Iaz, udaberria oso lehorra izan zela aintzat hartuz, 20.000 kilo babarrun bildu zituzten. Aurtengo uztarako 25.000 kiloak lortzea dute helburu.

Kopuru hori biltzea lortuko ote duten ikusteko bost hilabetez zaindu beharko dituzte aleak. Atzo lehen pausoa baino ez zen izan. Aitzitik, Laskorain ikastolako haurtxoek «pozik eta gogotsu» abestu zioten babarrunari, aurrez prestatutako bertsoekin: *Babarrun, babarrun/ zuloan sar dezagun/ babarrun babarrun/ gero bildu ditzagun*, zioten, taldean, doinu alaiekin. Hala, herriko gazteak herriko jaki magoikoa lortzeko lehen urratsaren protagonista bilakatu ziren. Azaroan burutuko beharko dute bigarrena: bilketa.

iragarki laburrak ▶

LANA

Saltzailea. Argazki-denda batean lanaldi erdian lan egiteko pertsona bat behar da Photoshop-ean aditua dena. Bidali curriculum-a argazkiarekin helbide honetara: argazkilaritolosaldea@yahoo.es

TOLOSA ▶

Imersoko oporretarako eskaerak, prest

Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak jakitera eman duenez, Imersoren oporretarako eskaerak dagoeneko jaso daitezke, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan bertan. Horretarako eskatzaileak baldintza batzuk bete beharko ditu: 65 urte baino gehiago izatea; sistema publikoko jubilazioa jasotzea; elbarritasun, alarguntasun eta abarrek pentsioduna izatea edo aurrejubilatua eta bi kasuetan 60 urteak beteta izatea. Ezkontidearekin batera joan daiteela era adierazi dute, honek aurreko baldintzak betetzen ez baditu ere.

TOLOSA ▶

Alde Zaharrak-Dendak elkarteko urteko batzarra

Gaur, Alde Zaharra-Dendak elkarrekin urteko batzarra egingo du. Bi deialdi dituzte horretarako; lehena 20:00etan eta 20:30ean bigarrena. Kultur Etxeko areto nagusian. Elkartetik kide guztiak gonbidatu nahi dituzte bertan parte har dezaten.

ALKIZA ▶

Hurtzaindegiari buruzko bilera, biharkoan

Bihar, 18:30etik aurrera, Kultur Etxean, bilera egingo dute Hurtzaindegia irekitzeko komenentziaren gainean jarduteko. Egun haur txikien guraso direnentzat eta etorkizunean izango direnentzat zuzendu du, bereziki, bilera Udalak.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Tolosaldeari eta Leitzaldeari buruzko berriak sar ditzakezu gure webguneko *Zeuk idatzi* atalean. Animatu eta sartu zure berria bertan lehenbailehen.

Komunikabide batek pertsona bat behar du

asteburuetan argazkiak ateratzeko.

Interesatuak deitu
661 678 817ra

astelehen, astearte edo asteazkenean,
12:00etik 14:00etara.

ZABALA DESGUAZEA

Beotibar Industrigunea, 18
BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347



MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

AGENDA 21 ▶

Ikasleek beraien ekarpenak aurkeztu dizkiete Udalekoei

LHko eta DBHko 100 ikasle inguru elkartu ziren atzo, udalbatzar aretoan



Samaniego-Orixeko, Hirukideko eta Laskoraingo ikasleak, alkatearekin eta alkateordearekin. HITZA

ESTI EZEIZA

Ezohiko irudia erakutsi zuen atzo Tolosako udaltzabar aretoak. Samaniego-Orixeko, Hirukide eta Laskorain ikastetxeetako LHko eta DBHko 100 gaztetxo inguru elkartu ziren, Eskolako Agenda 21ek Tokiko Agenda 21i egiten dizkion ekarpenak aurkezteko. Proposamen hauekin «eskola eta herria hobetzea» lortu nahi zutela adierazi zuten ikasleek. Hone-la, ikasturtean zehar landutako gai-proposamenak Jokin Bildarratz alkateari eta Olatz Peon alkateordeari aurkeztu zizkieten. Hauek arretaz entzun zituzten ikasleek ekarpenak, eta kontuan hartuko zituztela ziurtatu zuten. Bildarratzen esane-tan, «guztion iritziarekin, guz-tion Tolosa egin ahal izango dugu». Proposamenekin amaitzean, alkateak, trukean, bildutako konpromisoak benetan bete zitzaten eskatu zien gazte-iei. Eta proposamen bakoitzare-kiko Udalak zuen asmoa eta iritzia argitu zuten.

HAUR PARKEA

Faltan botatzen dituzten gauzak. Ezkutatzeko tokiak, ura eta hondarra jolasteko, zaldiak malgukiekin, sare handi-ago bat, txirrista handi-ago bat, be-larra, komunak, eta beste iturri bat, egoki-agoa. Bestetik, so-bran daude zakurren kakak, Landare-tza eta Perretxikoak (jolasa).

Konpromisoak. Zaborrak zarrontzira botatzea, txiki-agoak direnak errespetatzea eta ez molestatzea. Era berean, landareak zaintzea.

SORTZEZ GARBIA PLAZA

Proposamenak. Toki estali bat jartzea, zakarrontziak banku inguruetan jartzea, komunak jartzea eta garbi mantentzea, parkea eta bertako elementuak txukuntzea eta konpon-tzea, parkean elementu berriak jartzea eta adinarean araberako aktibitate batzuk antolatzea.

Konpromisoak. Bertako bizilagunak eta elementuak errespetatzea eta zaintzea. Zakarra zakarrontzira botatzea, be-

raien artean portaera egokia izatea eta jendea errespetatzea.

ZERKAUSIA

Beharrak. Gauzez argiztatzeko beharra ikusi, baita berokun-tza sistema baten instalakun-tza ere. Komunak ezartzea, eta goiko solairua jendearentzako irekia izatea. Bestetik, itxitura eliptikoa ez dute beharrezko-tzak ikusten; gainera, erraz apurtuko litzatekeela uste dute. Faltan botatzen dituzte ere, besteak beste, pantaila erraldoi bat, pareta inguruetan ma-haiak, ping-pong-eko mahaia, doaneko segurtasun telefonoa eta zakarrontziak.

Konpromisoak. Hauen artean, lanparak ez apurtzea, zaintzea, ez hondatzea eta komunak garbi eta txukun mantentzea aipu-tu zituzten.

Alkatearen erantzuna. Pantaila handia jartzeari dagokionean, argi asko dagoen eremu bat denez, arazoak egongo lirateke filmek ongi ikusteko. Bestetik, kulturgunea agian horra pasa-

tzearen ideia ere agertu zuen Bildarratzek. Gaztetxo eta hel-duagoentzat leku erosoago egin nahi dute; horrela, Inter-net eta ordenagailuak jartzeko sistema bat instalatuko dute. Hala, irailaren erdialderako prest egongo dela gaineratu zuen alkateak.

ZUMARDI HANDIA

Ondorioak. Berreskuratu be-har den lekua dela, batik bat, emakumeen ikuspegitik, arris-kutsua baita. Honez gain, menditxo dagoen bezala mantentzea, eta ibaiari naturaltasun itxura ematea. Ez daude kon-forme autobideak eragiten duen inpaktuarekin, eta hau disimulatu nahiko lukete. Sar-rereren egokierarekin ere ez daude gustura gazteak.

Proposamenak. Errekari da-gokionean: orain dagoen zikin-keria garbitzea, ertzetan dituen paretan kendu eta landare-tza jartzea, heriotza gabeko arran-tza egiteko prestatzea eta urak mugitutako tresnak jartzea. Honez gain, autobidearekiko, zutabeak landareekin estal-tzea, rokodromoa jartzeko era-biltzea, igerilekuko sarreran tunela jartzea, eta autoen zara-ta ekiditeko hesi akustikoak jartzea komentatu zituzten, ha-laber. Eta, azkenik, sarbideari dagokionez, sarrerako bide guztiak txukuntzea, harri kok-korrak eta aparkalekuak kentzea eta ezinduentzat egokitzea gomendatu zuten. Eskolapioe-tatik datorren bidea hobetu eta hileriraino luzatzea ere aipatu zuten, gero handik Leaburura eta Gaztelura igotzeko.

Alkatearen erantzuna. Zumar-di Handia berritzeko proiektua abian da: inguru horretan Iga-roundoko igerilekuak eta Galgo paper-entresa bota eta etxebi-zitza berriak eraikiko dituzte. Bestetik, Ibarren eta Tolosa-ren arteko banaketaren inpak-tua gutxitzearen, zutabe bat kentzeko asmoa dute.

HEZKUNTZA ▶

Interneteko egunean, softwarea mintzagai

Bideokonferentzia bidez Tolosaldea LHlan entzun ahal izango da hitzaldia

E. EZEIZA

Webaliantzak Software libre-aren jendarteratzeko xedearekin jarraituz, bideokonfe-rentzia bidez den hitzaldia eskainiko du Irungo Plaiaundi Institutuan, Donostiako Zubiri-Manteo Institutuan eta Tolosako Goi mailako Lanbide Heziketa Institutua-ren artean.

Webaliantza eta Irungo Plaiaundi Institutua, Donostiako Zubiri-Manteo Institutua eta TolosakoFP Goi Mailako Institutua lankidetzan ari dira Software Librearen jendar-teratzeko. Xede honekin, gaur, 09:00etan, Interneten eguna izanik, Webaliantzako zuzendari teknikari Luis Martin-Santos Garciak hitzaldia eskainiko du, eta os-tean eztabaida izango da ikastetxe-ko ikasleek artean. Ekitaldia bideokonferentzia sistema bidez ikusgai izango da ikastetxe hauetan artean.

Hitzaldi honen bidez ikasle guztiei, eta batez ere, Goi mailako Administrazio Ikas-keta Teknikoak burutzen di-tuztenei maila profesionale-an Software Librearen era-bilpenari buruz informazioa eskaini nahi diete. Hitzaldia-ren ostean, mahai inguru bat izango da ikasleek artean euren galderak eta kezak azaldu ahal izateko eta, era berean, teknologia honek eskaintzen duen aukerei buruz dituzten zalantzak mahaigai-neratu eta argitzeko.

Donostiko Zubiri Manteo-k, Tolosako Goi Mailako Institu-tuak eta Webaliantzak antola-tuta, iragan den urtean ospa-tu ziren jardunaldiak izan zu-ten arretarako dela-eta esperientzia berri honi ekin diote.

iragarki laburrak ▶
LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurilaritza laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.
Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.
Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Administrari laguntzaileak. Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

ANOETA ▶ HISTORIA

Herriari buruzko lehen liburu argitaratu dute baserrietan oinarrituta

Herenegun egindako 'Anoetako baserriak' liburuaren aurkezpenean San Joan eliza goraino bete zuten herritarrek

IMANOL GARCIA

San Isidro egunarekin bat eginenez, herenegun arratsaldean aurkeztu zuten *Anoetako baserriak* liburu. Herriari buruz egiten den lehen historia liburu da, eta bertako baserrien ezaugarriez gain ohiturak ere biltzen dira. Goraino beteta zegoen San Joan elizan egin zuten aurkezpena. Mahaiburuan izan ziren Juantxo Agirre-Mauleon liburuaren egile-taldea zuzendaria, Fidel Azpiroz Anoetako alkatea, Karlos Olaetxea Foru Aldundiko arkeologoa eta Sabino Etxabeguren baserritarra. Liburuaren Anoetako Udalak eta Foru Aldundiak bultzatu dute.

Baserritarrei eginiko omenaldia bihurtu zen ekitaldia. Horrela adierazi zuten bai Azpiroz egungo alkateak, bai Jose Mari Sarasola aurreko legealdiko alkateak, proiektua abiarazi zen garaikoak. Bere alde, Aranzadiko taldeak eginiko lana goraiatu zuen. Agirre-Mauleonez gain, Arantxa Agi-



Liburuaren aurkezpenaren une bat. I. GARCIA

rrer, Miren Garcia, Juan Carlos Mora, David Zapirain eta Mikel Errazkin izan dira lan hori burutu dutenak.

Herriko 38 baserriren informazioa biltzen da liburuan. Agirre-Mauleonek zenbait aipamen egin zituen Anoetako historiari buruz, eraikinen argazkiak erakutsiz. Liburuaren zuzendariak ere nabarmendu zuten Anoetan baserritarrak

izan direla protagonista eta «jauntxorik ez dela egon».

Aurkezpenaren bukaeran, liburu bana eskuratu ahal izan zuten herritarrek. Ekitaldira jotarik izan ez zutenek, badute beste aukerarik liburu lortzeko. Horretarako, udal bulegoetara edo udal liburutegira joan behar dute, hilaren 26a baino lehen, eta gonbidapena aurkeztu.

JUANTXO AGIRRE-MAULEON ▶
HISTORIALARIA ETA ARKEOLOGOA

I. GARCIA

«Baserriak izan dira gure nortasuna gorde dutenak»

Juantxo Agirre-Mauleon (Tolosa, 1965) izan da *Anoetako baserriak* liburuaren zuzendaria. Lan mardula egin duzue liburu argitaratzeko.

Aranzadiko lan taldea 2000. urtetik 14 udalerrien aipamenak jasotzen ari da Gipuzkoako eta kanpoko artxibategietan. Baserrien idatzizko aipamenak jasotzen ari gara: noiz eraiki ziren, herentziak... Datu pila biltzen ari gara eta datu base bat osatzen. Horri esker burutu dugu liburu. Orain hamar bat urte ikusi zen ikerketa lana

abiatu behar zela Tolosaldeko historiari buruz, eta orain historia horri buruzko hedapena egin behar da.

Zeintzuk ari dira izaten lan horren emaitzak?

Herri horietako bakoitzean liburu bat egiten ari gara. Baserriak izan dira gure nortasuna gorde dutenak. Gure eskualdean baserriak dira aipagarrienak eta goraiatu behar dira. Orain nekazaritzatik gutxi dira bizi direnak, eta herri askotan baserriak galtzen ari dira. ◀

ADUNA ▶ POLITIKA

70 herritarretik gora dute EHNA

ERREDAKZIOA

Adunako Bai Euskal Herriari herri ekimenak deialdia egin zuten herritarrei EHNari babes emateko. *Adunatarrok EHNA egin eta erabili* lelopean, 40 bat lagun elkartu ziren plazan. Adunan dagoeneko 70 herritarretatik gora dute EHNA, eta «egunerokotasunean» erabiltzen dute, ekimenetik azaldu dutenez.

Hauk dira EHNari atxikimendua eman dioten batzuk: Adunako Udala bere hautetsi guztien babesarekin, Muxkil kultur elkarteak, Jai Batzordea, Txulobi elkarteak, Basopeta guraso elkarteak, Zabala eta Aburuza sagardotegiak, Uztartza eta Benta jatetxeak, Iñaki Gorostidi harri-jasotzailea, Peio



EHNari babes emateko eman zuten hainbat herritarrek igandean. HITZA

Ezeiza taxi gidaria, Xabier Iturrioz herriko apaiza, Xabier Berasaluze Leturia panderojolea... «Euskaldunak garelako EHNA egin eta erabili» mezua

luzatzen dute ekimenetik eta gogoratu egunero EHNA tramitatu daitekeela udaletxean. Errolda agraria, hiru argazki eta 15 euro aurkeztu behar dira.



HIRIGINTZA ▶

Alegiatik Bentaundira dagoen tartea uda aurretik esleituko dute

Gobernu Kontseiluak, Gipuzkoako Ur Partzuergoak eta Lurralde antolamendu departamentuak hitzartu dute



Obra Alegiatik Bentaundira doan bidean egingo dituzte. N. URBIZU

ERREDEKZIOA

Gobernu Kontseiluak, Gipuzkoako Ur Partzuergoak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu departamentuak elkarlan hitzarmena adostu berri dute. Haren bitartez, azken honen Oria Medioko kolektoreari dagozkion obrak burutzeko konpromisoa hartzen du, Alegia eta Bentaundi artean, hain zuzen ere.

Proiektuaren kostua 4.400.000 euro ingurukoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu departamentuak hartuko du bere gain. Behin obrak amaituta, honek Gipuzkoako

Ur Partzuergoaren eskuetan utziko du kolektorea eta Oriako gainerako saneamendu sarearekin batera, berau kudeatzeaz arduratuko da.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu departamentuaren nahia Partzuergoak lurrik bere eskuetan utzi bezain azkar obrak lizitatzea da, eta litekeena da hori uda aurretik izatea.

Obra honek jarraikotasuna ematen dio egun Eusko Jaurlaritzak Legorreta eta Alegia artean burutzen ari den proiektuari. Honek 8.660.000 euroko kostua izango du, eta hau ere Ingurumen eta Lurralde Antolamendu departamentuak

hartu du bere gain. Aipatu obra hauek urte amaierarako amaitzea espero dute.

Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Ur Partzuergoak Gipuzkoan saneamendu azpiegiturak eraikitzeke eginiko hitzarmenaren baitan kokatzen da ere, Alegia-Bentaundi zatia. Honek Tolosaren zeharbidea suposatzen du, eta kolektorearen zabalkuntza Iruraraino. Oria Mediori zerbitzua emangodion eta Adunan kokatuko den araztegia, nahiz instalazio hau eta Irura artean kokatuko den kolektorearen azken zatia —azken hau burutze fasean—, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura dira.

IRURA ▶ KULTURA



Kultur Astea denen gustura eginda

N. Urbizu ▶ Irurako Kultur Astea zela eta, jubilatuek jokoak egin zituzten atzo Zaharren Biltokioan. Egitarauarekin jarraituz, gaur, 18:00etan *Mimarte* antzerki eta mimika ikuskizuna izanen da, eta 19:30an Irurako Gazte Guneako kideen *Gure Kuadrilan* antzerki emanaldia, ikastolako aretoan. N. URBIZU

PILOTA ▶



HITZA Pilota Txapelketako binakako jubenilen partida bat. n. u.

HITZA Pilota Txapelketa inguruko pilotalekuetan

Aste honetako partidak eta emaitzak

N. URBIZU

Bidanian gaur jokatuko diren HITZA Pilota Txapelketako partidak hauek dira: kadeteetan eskuz banaka, Urrutia Otegi-aren aurka, 16:30ean. Ondoren, Antia eta Urteaga. Goienetxeren eta Jauregiaren arteko partida izango da gero, Mindegia eta Irazustarenarekin bukatzeko.

Beotibarren etorkizunekoena jokatuko dute, 20:30ean: Zelaia-Ugartemendia eta Pikabea-Mitxelena. Bihar Azpiazu-Azpiazu eta U. Arraztoa-Mendinueta ere ariko dira.

Aurreko emaitzak

Infantilen mailan, Juanena-Kanpo 16, Irastorza-Santxo

18. Irastorza-Gailurralde 18 Berezitua Urretabizkaia 7. Labaka-Arratibel 18, Oronoz-Olaizola 0. Emaitza bera izan zen Nazabal-Karrera eta Aizpuru-Galarragaren artekoan.

Alebinetan, Untxalo-Apeztegia 16, Irazusta-Benadre 4; Izagirre-Azkarate 16, Galarraga-Otaegi 15; Irribarria-Oliveira 0, Erdozia-Urkizu 16; eta Otaño-Urkola 3 Ibarzabal-Tolosa 16.

Benjaminetan, Almandoz-Azpiroz 16 Zubeldia-Ugalde 11; Toral-Izagirre 16, Arruti-Unzola 12; Goitia-Murua 1, Teletxea-Mitxelena 16; eta Alkorta-Maiz 16, Peña-Iturbe 11.

Jubeniletan, Beotibarren, Eskudero-Leundaren eta Iturrioz-Telletxearen artekoan 20-22koa izan zen emaitza.

berriarekin

“50 IBILALDI ERRAZ, HAURREKIN EGITEKO MODUKOAK” LIBURUA

+ KUKUXUMUSUK diseinatutako kantiplora bat OPARI!

Laguntzaileak:

- EUSKO JAURLARITZA
- GOBIERNO VASCO
- Ingurumena
- CASA LABORAL EUSKADIAK KULTURA

Larunbat honetan **maiatzak 20**, kupoientzako **kartilla BERRI**arekin

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

LEABURU-TXARAMA ▶

Herriko jaiak
antolatzeko bilera
bihar, 20:00etan

Jaiak antolatzeko bilera elkartean egingo dute ostegunetan, 20:00etan. Aurreko bileran zehaztutakoaren arabera, Gipuzkoako Nagusien Aizkolari Txapelketa egingo dute aurtengo jaietan.

LEABURU-TXARAMA ▶

Hitzaldiak
antolatu dituzte
osasunari buruz

Uli Mankomunitateak eta Kutxak antolatutako osasunari buruzko jardunaldietan, zaintzen duen pertsonaren zaintza landuko dute gaur, osasun gunean, 18:00etan.

BERROBI ▶

Bordelera irteera
antolatu dute
larunbatean

Kultur batzordeak larunbatean, hilaren 20an, Bordelera, Nazioarteko Azokara, irteera antolatu du. Gaur da izena emateko azken eguna.

TOLOSALDEA ▶

Loatzo musika
eskolako
matrikulazioa

Bihar izango da Loatzo musika eskolan matrikulatzeko azken eguna. Anoetako ikastolan, Zizurkil, Ibarra eta Villabonako Kultur Etxeetan eta Irura, Aduna, Alegia eta Altxoko udaletxeetan edo 943 69 26 19 zenbakira deituta egin ahal izango da.

iragarki laburrak ▶



Pablo Gorosabel, 40
1. pisua - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel: eta Fasa: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

5-7 irabazi du Ibarrak
EHUren aurkakoa

Epaileen lan «kaskarra» salatu dute; beraien azken partida jokatuta, bigarren dira, azken jardunaldiaren esperoan

ERREDAKZIOA

Aurtengo denboraldiko azken partida jokatu zuen larunbatean Ibarra areto futbol taldeak. Donostian izan zen partida, EHUren arteko derbia, hain zuzen, eta ibartarrak gailendu ziren 5-7ko emaitzarekin. Jose manuel Tobias Ibarra koen prentsa arduradunak azaldutakoaren arabera, epaileen lana «inoiz ikusirik penagarriena» izan zen, «partidaren azken minutuan 40 falta ikusi eta 5 jokalarik kaleratu baitzituzten»; «ezin esan daiteke talde aurkariaren aldeko epaileak zirenik, besterik gabe, oso

SAILKAPENA ▶

Taldea	Puntuak
1. Atenea-Alaves	59
2. Ibarra	58
3. Logroño	55
4. EHU Gipuzkoa	51
5. Uitzama	48
6. Xota	47
7. Muriedas Urrutia	42
8. Soloarte	41
9. Sestao	39
10. Arnedo	32
11. Sasikoa	29
12. Aretxabaleta	28
13. Gazte Berriak	25
14. Cerverano	14
15. Jarrileros	12

txarrak ziren», gehitu du Tobiasek.

Partida nahiko orekatua izan zen, eta Ibarrak irabazi bazuen, eusten jakin zuelako izan zen. Ibartarren aldetik, Xabi Blanchek eta Pradosek bina gol egin zituzten eta Ustaritzek, Unai Labakak eta Camiok bana sartu zituzten. Azken emaitza, beraz, 5-7koa izan zen.

Emaitza horrekin Ibarra koen bigarren postuan kokatzen dira Alaves liderra baino puntu bat gutxiagorekin. Hurrengo izango da denboraldiko azken jardunaldia, baina Ibarrak atsedena duenez, ezingo dute lehenengo posturako lehiatu.

BERROBI ▶ KULTURA



Kultur Astearen parte-hartzearekin gustura

Erredakzioa ▶ Astelehean hasi eta larunbatean bukatu zen Berrobiko XVI. Kultur Astea. Aste osoan zehar askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izan dute herritarrek, eta antolatzaileak pozik daude lortutako emaitzekin, «oro har jende

askok hartu baitu parte». Irudian, ezkerrean, larunbateko txakoli dastaketako une bat, eta esku-bian, Mus Txapelketakoa —6 bikote aritu ziren eta Berrobiko Imanol Arratibel eta Elduaingo Joxean Agirre izan ziren irabazleak—. HITZA

MENDIA ▶

Shisha
Pangmako
espedizioa,
bertan behera

Goikoetxeak, Aizpuruk eta Joubertek utzi beharra izan dute eguraldi txarragatik

ERREDAKZIOA

Apirilaren 6an ekin zioten Jon Goikoetxea *Boli* eta Unai Aizpuru ibartarrak eta Manu Joubert alegiarrak, Shisha Pangmarako espedizioari. Sarasola anaia ordiziarrak, Koldo Huegun usurbildarra, Karlos Gonzalez gasteiztarra eta Willy Bañales bizkaitarra izan dituzte bidelagun, 8.027 metroko gailurra helburu zuen abenturan. Burutu gabeko abenturan geratu da, ordea; behin eta berriro saiatu diren arren, etengabeko eguraldi txarra dela-eta etxera itzuli behar izan dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ FUTBOLA



Ligan zehar, partiduz partidu agurtu ditu zaletuak Aurrerak. Irudian, aurreneko partidukoa. JAIONE ASTIBIA

Aurreraren Ligako azken partiduan ere ikusmina iragarrita

Irunberri izanen du arerio Arkixkilen eta bi taldeak irabazi beharrean aurkitzen direlarik partidu gogorra espero dute

JAIONE ASTIBIA

Igandean jokatu du Aurrerak 2005-06 Ligako azken partidua. Eta ezaugarri bereziak ere izanen dituela baieztatu daiteke.

Izan ere, alde batetik, etxean jokatzeko egokitu zaio; horrek zaletuen aldetik izanen duen bultzada nabarmen igoko du. Gainera, Hitzak jakin duenez, denboraldi osoan zehar taldearen ibilbidea jarraitu duten zaletuak aurretik bazkaria ere egitekoak omen dira; ondorioz ikuslegoan giroa ziurtatuta dagoela esan liteke. Bestetik, zelaiaren barrenean bi taldeen irabazteko premiak ezarriko du jokoaren nondik norakoa.

Eta zentzu horretan «partidu gogorra» espero dute leitzarrek. Halaxe adierazi dute.

Aurrerak, bere aldetik, igorako ligaxkan bere lekua ziurtatuta dauka; bigarren dago eta leku horri eutsi nahi dio, hain zuzen ere, horrek eskubidea emanen liokeelako bigarren partidua etxean jokatzeko, eta «horretarako hirugarren dagoen Baztanengandik aldentu beharrean» dago.

Bide horretan, pasa den igandean puntu bakarra gehitu zion bere kontuari Leitzako taldeak, 3nako berdinketa egin baitzuen San Inazioekin: lehen zatian 0-2 irabazten joan arren, bigarrenean 3-2koa ere ikusi zuten, azkenik Joseba Mu-

tuberrak, jubenetako jokalariek, sartu zuelarik berdinketako gola. Baztanek bere aldetik irabazi egin zuen. Aurrerarekin duen alde 3 puntura tikituz. Beraz, bigarren leku hori ziurtatzekotan, igandeko 3 puntuko etxean gelditu behar dute.

Baina Irunberri ere asko du jokoan, dena. Bosgarren dago, San Inazioekin, laugarrenekin, puntuz berdin. Igorako ligaxka lau lehendabizikoez jokatuko dute. Beraz, hauek ere premiazkoa dute irabaztea.

Asko dago jokoan, beraz, azken partidu honetan. Beti ere eginbehar honetarako zale-tuen eginhala ere lagungarri izanen omen zaie.

ARESO ▶ SOKATIRA

Areso «gustura» aritu da lehendabiziko saioan

Taldeko lau kide berriak hasieratik sartu dira sokan, txapelketako erritmoa hartuz

J. ASTIBIA

Taldea berrituta ekin dio Aresoko sokatira taldeak Euskal Herriko lur gaineko txapelketari eta larunbatean Berriatun jokatu zen 680 kiloko aurreneko jardunaldiari dagokionez «balorazio ona» egin dute: «Lehendabiziko tiralditik beretik taldeko kide berriei aukera emanez, tiraldi txukunak egin genituen».

Txapelketako lehendabiziko jardunaldi hau Nuarbek (6 puntu) irabazi zuen; Gaztedi A (5 puntu), Goiherri (4 puntu), Areso (3 puntu), Mutriku (2 puntu) eta Gaztedi B (puntu 1), izan ziren hurrenak. Aresok laugarren tokia eskuratu zuen eta, beraiek ez ezik, «gehienbat talde guztiak nola dauden ikusteko» baliatu omen zuten;

eta han ikusitakoaren ariora, beren iritzian, «sei taldeak ere maila berdintsukoak» plaza-ratu zirela ondorioztatu: «Espantua handiegirik gabe, gehienak ere tanteatzera joan ginen. Txapelketan sartu ahal, ikusiko da aldean».

Aurren-aurrenetik sartu ziren sokan Sagastibeltza, Iantzi eta L. Otermin Areso sokatira taldeko kide berriak, Otermin anaiekin, Loiarterekin, Baraibarrekin eta Arrarasekin batera, eta hasieran «zurduritasuna nabaria» izan zen arren, txapelketa hasi ere, Nuarberen aurkako tiraldiekin egin zuten eta. «Lanak aurreratu ahala, martxa hartu» zuten eta egindakoarekin «gustura» gelditu ziren. Arbetok ere sokan aritzeko aukera izan zuten.

OSASUNA ▶

Zakurrak amorraren aurka txertatzeko deia

Albaiteroa ostiral eta larunbatean ariko da

ERREDAKZIOA

Leitzako eta Aresoko udaletatik jakitera eman dutenez, bi herrietan asteburu honetan egingen dute amorraren aurkako zakurren txertaketa. Bide batez, zakurrei identifikazio-txipak jartzeko aukera ere izanen da.

1994ko irailaren 19ko Foru Aginduaen ariora, «lau hila-betez goiko zakurrak mikrotxipaz identifikatzera eta amo-

rruaren aurkako txertoa ematera behartuta» daude zakurren jabeak, «baita bi urtetik birtxertatzera ere».

Horrela, Leitzan, suhiltzaileen egoitzan, bi egunetan egingen dute txertaketa saioa: ostiralean, goiz eta arratsalde, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara; eta larunbatean, 10:00etatik 12:00etara. Areson, berriz, larunbatean egingen dute, Plaza Zaharrean, 12:00etatik aurrera.

hilberria ▶

Juan Telleria Telleria

Atzo hil zen, 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Ama: Maria (Jose M^a-ren alarguna); anai-arrebak: Joxe eta Encarni Azurmendi, Beatriz eta Inazio Imaz; ilobak: Zelia eta Inaki Altolagirre, Karlos eta Leire Murua, Asier eta Loinez Agirre, Estibx eta Iker; izeba: Felisa Telleria; lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoi-z bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPI T'ERDIETAN, SAN MARTIN parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpua GOIERRI BEILATOKIAN egongo da Helbidea: Olanen 6, 3. esk. ▶

ZEGAMA, 2006ko maiatzaren 17a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 17a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



23

hotzena

15

BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Kultur Astea. 17:30ean, *Mimarte* antzerki eta mimika ikuskizuna Peter Roberts aktorearen eskutik, 12 urte arteko gazteentzat; 19:30ean, Irurako Gazte-guneko kideen *Gure koadrilan* antzezlan. **Leaburu.** Jaiak antolatzeko bilera. Bihar, 20:00etan, elkarte. **Tolosa.** Alde Zaharra-Dendak elkartearen urteko batzarra, Kultur Etxean. 20:00etan lehenengo deialdia, eta 20:30ean bigarrena.

ERAKUSKETAK

Gaztelu. Edorta Muruaren antzinako euskal jantzi buruzko erakusketa. Hilaren bukaera arte ikusgai, Ostatuan. **Tolosa.** Iñaki Olazabalen eskulturak. Hilaren 27ra arte, Aranburu Jauregian. **Tolosa.** Mari Carmen Ortegaren pintura lanak, Lanbroa tabernan. **Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta koadroak. Hilaren amaiera arte, Saikin tabernan.

HITZALDIAK

Leaburu. *Zaintzen duen pertsonaren zaintza.* 18:00etan, Kultur-osasun gunean. **Zizurkil.** Venezuelako prozesu iraultzailea, Ibon Artolarekin. 19:00etan, Gaztetxean. Maiatza Gorriaren egitarauaren baitan.

ZINE-KLUBA

Alegia. Fernando Meirelles zuzendariare *El jardinero fiel* filma. 21:30ean, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52, 112.
 Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2, 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoak, albisteak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-22:30. *Bide okerretik*.
 22:00-23:00. *Street noise*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Buztin tailer arrakastatsua Onddo Gaztetxean

VILLABONA ▶ Onddo Gazte Asanbladak haurrentzako buztin tailerra antolatu zuen pasaden larunbat goizean, Gaztetxe aldamenean. Oso arrakastatsua izan zen deialdia: 50 haur elkartu ziren, eta umeek ezezik gurasoek ere ederki pasatu zuten eskulanak egiten. HITZA

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 256.a (2006ko maiatzaren 12a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. *Auzoetako eta herrietako jaien zain*.
Beste gaiak. Jesusen Bihotza ikastolak 40 urte, Juan Kruz Igerabide adunarra 2005eko Beterriko Liburu, Asteasuko Kale Nagusia oinezkoentzat, Artea Zizurkilgo Olentzo jatetxeko lorategian, Asteasuko birrindulariak Leitza randik barrena, udan begirale modura lan egiteko deialdia Zizurkil, Atxulondo ezagutzeko aukera ederra Maiatza Saltsan-en harira antolatutako irteeran, Andatza Eguna...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
 ▶ Kale Berria 47, 3. esk.
 ▶ 943 69 64 50
 ▶ aiurri@topagunea.com
 ▶ www.aiurri.com

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Gora Villabonako txikia!
 Euskal presoak ebera, orain!
 Jo ta ke helburu guztiak lortu arte.



URTE ASKOAN
 Luisa Jauregi.

Gaur 92 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Nabil (Amarotz).

Muxu handi bat zure zortzigarren urtebetetzean.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...